

3.1. Juan Inazio Hartsuaga Uranga

Irulegiko zorioneko testua aztertzeko saio honek fonetika diakronikoa du oinarri eta muga, baina ez ordea hesi. Ohiko testu laburregiak ez bezala, Irulegiko honek bestelako hurbilbideak onartzen dituelako, semantikari ohikoa ez duen protagonismoaz jabetzeko aukera luzatzen dion aldetik batik bat.

Bertan garatu behar dugun saioak, Leonardo de Vinciren zubi eratxearen antza du nolabait. Hagak eta zehar-hagak elkarri lotuz eraikitzen da, inolako iltze, ziri edo kabilarik erabili gabe, zurezko irazki eta bilbeak bailiran. Zubiak tankera eskasa du txit hasieran, baina aurrera egin hala, gero eta sendoagotu egiten da, azkenean taxuzko eraikin zurruna bilakatu arte.

Saio honetan ere, ikerbidean aurrera egiteko iradokiko ditugun proposamenei eskas iritzi ahal izango zaie agian, banan-banan begiratuta, Leonardoren zubia osatzen duten hagei eta bilbeari bezala. Ez da gure asmoa eztabaida horretan sartzea, besteak beste iritzi ezkor horien atzean, zalantzarik gabe dakigunaz haragoko hainbat aurre-iritzi egon daitezkeelako, zinez ez dagokien axioma soinekoz jantzita. Hemen darabilgun teoria sinplea da: hagak eskasak direnentz ez eta bai kalaka antzuan ibili beharrean, zubiak izango du azken hitza. Zubiak eusten badio, orduan hagak eta bilbea baleko zirela ezpairik gabe esan ahal izango dugu.

Metafora apur bat zehaztuz, inori ilunegi gerta ez dakion, Orotariko Euskal Hiztegia izango dugu etengabeko erreferentzia eta Mitxelena-ren FHV ezin besteko gida, baina airean egindako berreraikipenek eta horietatik datozkeen hainbat "ezinezkotasun" arinegik ez ditugu aintzat hartuko proposamenak egiteko garaian. Azken emaitza izango dugu, zubiaren antzo, epaile bakarra. Proposamenok Interpretazio esanahitsu borobil batera eramaten bagaituzte, onetsi egin beharko dira, metodoarekin batera, berrikerak gorabehera. Besteak beste okerreko proposamenetik abiatuta interpretazio borobil

En esta propuesta de análisis del texto de Irulegi la fonética diacrónica, actúa como base y límite pero no como obstáculo. A diferencia de los textos típicos, demasiado breves, este de Irulegi admite otras aproximaciones, y sobre todo permite a la semántica tomar un protagonismo que no es el habitual.

La propuesta que vamos a desarrollar se asemeja en cierto modo al puente autoportante de Leonardo de Vinci. Se construye uniendo vigas y traviesas sin atarlas con clavos o gavillas de ningún tipo, como urdimbres y tramas de madera. El puente tiene un aspecto frágil al principio, pero al avanzar se va consolidando hasta convertirse en una construcción robusta.

Igualmente en nuestro caso, las propuestas que sugerimos para avanzar en la investigación pueden parecer frágiles individualmente, al igual que las vigas y traviesas que conforman el puente de Leonardo. No es nuestra intención entrar en ese debate, entre otras cosas porque detrás de ciertas opiniones negativas puede haber una serie de prejuicios que, yendo más allá de lo que sabemos con certeza, circulan por ahí con un ropaje de axioma que no les corresponde. La teoría que manejamos aquí es simple: en lugar de debatir estérilmente sobre si los elementos son frágiles, el puente tendrá la última palabra. Si el puente aguanta, podremos reivindicar la validez de sus vigas y traviesas.

Precisando un poco más la metáfora, para que a nadie resulte demasiado oscura, digamos que tendremos como referencia permanente el Diccionario General Vasco y como guía la FHV de Mitxelena, pero las reconstrucciones etéreas y las "imposibilidades" demasiado precipitadas que de ellas se derivan no serán tenidas en cuenta a la hora de elaborar las propuestas. El único árbitro, al igual que en el puente, será el resultado final. Si estas propuestas nos conducen a una Interpretación plena de sentido, deberán ser tenidas en cuenta, junto con el método, olvidando ciertos apriorismos. Entre

batera iristeko aukerak estatistikoki hutsaren hurrena direlako.

Beraz, Orotarikoaren erreferentziaz eta FHVren baitako bilakaera proposamenetara mugatuz, arlo semantikoari emango diogu lehentasuna, testuaren luzeak eta testuinguruaren argibide sorta naroak eskaintzen diguten ez ohiko aukera baliatuz. Interpretazio ahalik eta ulergarrien eta esanahitsuena erdiestea izango da lan-ardatza, aipatu mugen baitakoa dela egiaztatuz noski gero.

Edozein testuan egin beharreko lehen urratsa, testu hori behar bezala zatitzea da, gaizki zatituz gero, inoiz izan ez diren hitzen bila jardungo dugulako gero, eta bistan da, ez dugula ezer edirengo ikerbide horretan. Irulegiko eskuak, jendaurreko aurkezpenean nabarmendu zen sorioneku hitzaren ondoren, honako testua du.

otras cosas porque las posibilidades de llegar a una interpretación pertinente a partir de una propuesta errónea es estadísticamente ínfima.

Por lo tanto, con la referencia del DGV y ciñéndonos a los criterios evolutivos que establece la FHV, priorizaremos lo semántico, aprovechando la ocasión que ofrecen la extensión del texto y la profusión de indicaciones contextuales. Nos centraremos en conseguir una interpretación lo más pertinente y plena de sentido que sea posible, verificando obviamente que se encuentra dentro de los límites señalados.

El primer paso a dar en cualquier texto es dividirlo correctamente, porque si lo hacemos mal, luego buscaremos palabras que nunca han existido y, evidentemente, no encontraremos nada. La mano de Irulegi, tras la palabra sorioneku que destacó en la presentación pública, tiene el siguiente texto.



Euskaraz ez da, nik dakidala, bi e jarraian dituen hitzik, eta beraz, testuko bi horien artean ebakitzea irizten diogu egokien. Ezkerretan *tenekebe* geratzen zaigu eta eskuinetan berriz *ekirateren*. Hurrena, ezkerrekoari begira, *kebe* da, *tenekebe* horren barruan ulertzeko moduko zerbaiten tankera duena. Izan ere, zubererazko *heben* erakusleak (*hemen*) badu *hebe* aldaera, Orotarikoak jasotzen duena. Beraz pentsa liteke erronkarierazko *keben* aldaerak ere, izan zezakeela bere *kebe*. Orotarikoan badator *keben*, ez ordea *kebe*. Halere, huts hori Orotarikoarena da, *kebe* aldaera ageri baita Mendigatxa bidankoztarraren idatzietan (*Badago kebe Otsagiko animarik?*)

En euskera no hay, que yo sepa, palabras que tengan dos *e* consecutivas, por lo que parece que procede cortar entre esas dos. A la izquierda nos queda el *tenekebe* y a la derecha *ekirateren*. Mirando a la izquierda, dentro *tenekebe* tenemos *kebe*, que resulta comprensible. En efecto, el demostrativo suletino *heben* (aquí) tiene la variante *hebe*, que recoge el D.G.V. Por lo tanto, podría pensarse que el correspondiente *keben* roncalés podía tener igualmente su propia variante *kebe*. En el D.G.V. viene *keben* y no *kebe*. Sin embargo, es un error del D.G.V., ya que la variante *kebe* aparece en los escritos del bidankoztarra Mendigatxa (*Badago kebe Otsagiko animarik?*)



Esanahiaren aldetik, bistan da aurreko *zorioneku* hitzarekin bikote txit egokia osatzen duela *kebe* (*hemen*) erakusleak. Eta bien artean harrapatuta geratzen den *tene*, iberiar idazkeraren arabera, *tene* nahiz *dene* izan daitekeela jakinik, azkenaren aldeko aukerak ez du zalantzarako zirrikitu handirik uzten. *Zorioneku dene kebe*. Zaila da bertan ez ulertzea *Zorioneko dena hemen*, zaila den arren ere, *dene* hori zer den zehatz mehatz garbi ikustea: *dena? Den(a) ere?* Zernahi dela eta, Leonardoren zubigintzan gabiltzanez, zilegi bekigu aurrera egitea, egokitasun semantikoa baliatuta eta bestelako zalantzak argitu gabe utzita.

Azkenik honi dagokionez, *kebe* aldaerak Bidankotzeraino eramaten gaitu, Zaraitzuko mugako Erronkariko ibarrera, Irulegitik urruntxo. Oraingoz aipamena egina uzten dugu, iruzkin baratxeagoa egingo diogu gero.

Marratik eskuin aldekoari ekitera igarotzerakoan berriz, topo egiten dugu erabaki beharreko lehen auzi serioarekin: *r*-en auziarekin, alegia. Izan ere, bi *r* mota ageri zaigu testuan, alde batetik *Sorioneku* hitzean dagoena, testua aurkeztu dutenek *r* emetzat aurkeztu dutena (*gara* diogunean bezala), eta bestea berriz gainerako kasu guzietan ageri dena, aurkezleek *rr* dardarkari ozentzat jo dutena (*arrautza* esaten dugunean bezala). Aurkezleek azpimarratu dute egindako aukera horiek ez direla nahitaezkoak eta badirudi horrela egin dutela *zorioneko zorioneku* hori elki zedin. Halere, hitz fetitxea erdietsi izanaren ordainetan prezio garestia ordaindu beharrean geratzen gara, gainerako *r* guztiak *rr* gisan irakurri behar izanez gero zeharo murrizten baitzaizkigu testua


Desde el punto de vista del significado, es evidente que con la palabra *zorioneku* (*dichoso*) forma una pareja muy adecuada (*kebe*-hemen-aquí). Y sabiendo que el *tene* que queda atrapado entre ambos puede ser, según la escritura ibérica, tanto *tene* como *dene*, la opción por la última no deja lugar a dudas. *Zorioneku dene kebe* (*dichoso quien está aquí*). Aunque sea difícil, traducir exactamente lo que es eso: **dene** : dena= quien está ; dena ere =quienquiera está). Sea como sea ,ya que estamos en el puente de Leonardo, permitasenos seguir adelante, valiéndonos de la pertinencia semántica y dejando sin resolver esas otras dudas.

Por último, digamos que la variante *kebe* nos lleva hasta Bidankoz, valle del Roncal fronterizo con Salazar, lejos de Irulegi. De momento dejamos la cita hecha, después le haremos un comentario más con más tranquilidad.

Mirando al segmento de la derecha, nos encontramos con la primera cuestión seria a resolver: el contencioso de la R. De hecho, en el texto aparecen dos tipos de *r*, uno en la palabra *Sorioneku*, que quienes han presentado el texto han tomado como *r* suave (como cuando decimos *gara*-somos), y por otro la que aparece en todos los demás casos, que han presentado como *rr* vibrante sonora (como cuando decimos *arrautza*-huevo). Quienes presentaron el texto advierten que podría haber otras opciones y se diría que la que han priorizado buscaba llegar a la lectura *zorioneku*-dichoso. Sin embargo, como contrapartida a obtener la palabra fetiche, nos vemos obligados a pagar un alto precio, ya que si tenemos que leer todas las demás *rr*es como

interpretatzeko aukerak.

rr, las posibilidades de interpretación del texto se reducen drásticamente.



Gero ikusiko dugunez, interpretazio aukera hobeak sortuko lirateke testuko r ugariago horiek gara bezala irakurtzerik bagenu. Posible al da?

Euskal Filologoen artean bada nahiko adostasunik esaterakoan gaur egungo *r* eta *rr* fonemen arteko ahoskeran dagoen aldea ez bide dela beti horrelakoa izan euskaraz, eta oso litekeena dela garai batean *r* bakarria izatea, aipatu bien erdi bidekoa, edo *r* ahoskera emearen hurbilagokoa. Horren adibide ditugu bikoiztutako *arotza* eta *arrotza* edota gaur egungo euskalkien arteko hainbat ahoskera ezberdintasun (*ezarri v. ezari*).

Baina, adostasun orokorraren baitan kokatzen gaituen uste horri atxikitzen bagatzaizkio, nola ahoskatu behar dugu hasierako beste *r*-a, *Sorioneku* hitzan ageri zaiguna? Bistan da besteak ez bezalako ahoskera izan behar zuela, bestelako letraz idatzi zutenez gero. Gure gaurko *r*-a eta *rr*-a bat bera baziren edo oso ahoskera hurbilekoak, zer ote zen beste *r* diferente hori?

Euskararen eta iberieraren ezaugarri fonetikoei erreparatuta, lehenik eta behin otutzen den

Como luego veremos, las posibilidades de interpretación aumentan si podemos leer como erre suave esas otras erres más numerosas del texto. ¿Es posible?

Hay bastante acuerdo entre los Filólogos Vascos en que la diferencia en la pronunciación de los fonemas *r* y *rr* actuales no parece haber sido siempre así en euskera, y que es muy probable que antaño sólo hubiera una *r*, intermedia entre ambas, o más cercana a la pronunciación *r* suave. Ejemplos de ello son *arotza-carpintero* y *arrotza-extraño* o las diferencias de pronunciación entre los dialectos actuales (*ezarri v. ezari : establecer*).

Pero entonces, si nos adherimos a esa creencia que nos sitúa en el seno del consenso general, ¿cómo hemos de pronunciar la otra *r* inicial, que nos aparece en la palabra *Sorioneku*? Evidentemente debía ser una pronunciación distinta, puesto que han escrito letras distintas. Si nuestra dos erres actuales derivan de una única de sonido intermedio qué era esa otra *r* diferente?

Atendiendo a las características fonéticas del euskera y del ibérico, la opción que primero se

aukera, *rh*-a da, *erho* edo *erhi* bezalako hitzetan ageri zaigun *r* hasperenduna. Hautu hau, beste edozein bezain zilegi da eta semantika mailan hobaririk ematen digun heinean lehenetsiko dugu, ez beste ezerengatik.

Honen arabera, honela irakurri beharko genuke testua

ZORHI ONEKU DENE KEBE. EKIRATEREN OTIRTAN ESEAKARI ERAUKON.

Zorioneko *zori* galdu ondoren ez gara halere umezurtz geratuko, Orotarikoak dioskunez *zorhi* ere badelako zerbait: *Heldua* edo *sasoikoa* esan nahi du, eta lurraren fruituez esan ohi da, non eta ... Erronkarin eta Zaraitzun besteak beste. Izan ere, eguneroko bizitzan erabilpen sarriko izango zen noski, Zangotzako gaztelanian ere gorde baita *sorico* hitza, fruitu umoari esateko. Esanahiaren aldetik, *zorte oneko* ordez *sasoi oneko* jartzeak ez du ematen aldaketa handia dakarkionik, ongi etorriko izan daitekeen mezu abegikor horri.


Mezuaren gainerako *r*-tan berriz, interpretazio bidea leunago geratzen da *ekirateren* eta *eraugon* irakurri badezakegu. Lehen kasuan genitibo posesibo itxura geratzen delako eta bigarreanean berriz aditz faktitibo batena.

baraja es el *rh*, la erre con aspiración que se nos muestra en palabras como *erho* o *erhi*. Esta hipótesis es tan legítima como cualquier otra y la priorizaremos en la medida en que nos haga progresar a nivel semántico, no por otra cosa. Según esto, deberíamos leer el texto en los siguientes términos:

ZORHI ONEKU DENE KEBE. EKIRATEREN OTIRTAN ESEAKARI ERAUKON.

Perder el *zori* de zorioneku no nos deja huérfanos después de todo, porque en el D.G.V también hallamos *zorhi* : Significa *maduro*, *en sazón* y se dice de los frutos de la tierra, y además se utiliza en... el Roncal y Salazar, entre otros. La palabra tuvo tal arraigo en su tiempo palabra *sorico* se ha conservado en el castellano de Sangüesa para referirse a la fruta madura. Desde el punto de vista del significado, sustituir *dichoso* por *maduro/en sazón* no parece suponer una dificultad insuperable.

En el resto del mensaje, en cambio, el camino de la interpretación queda más propicio si podemos leer *ekirate* y *eraugon*. Porque en el primer caso queda la apariencia de un genitivo posesivo y en el segundo la de un verbo factitivo.



Une honetan, gaurkoa bezalako euskal esaldi baten pareko zerbait ageri ote den ematen du, ulergarri ez den arren....rentan,kari (aditza).

Hasieratik hasita, *ekirateren* horrek, bere genitibo posesiboarekin, *Ekirate* izeneko balizko pertsonaia baten aurrean kokatzen gaitu, eskua zintzilik zegoen etxeko jabea bide zena. *Ekirate*, ezagutzen ez dugun garai hartako izen pertsonala izan liteke edota *Ariztimuño* bezalako toponimiatik hartutako antroponimoa.

En este momento, da la impresión de que aparece algo parecido a una frase vasca como la de hoy, aunque no sea comprensible:rentan,kari (verbo).

Comenzando desde el principio, ese *ekirateren*, con su genitivo posesivo, nos sitúa ante un posible personaje llamado *Ekirate*, que se diría ser el dueño de la casa en la que pendía la mano. *Ekirate* podría ser un nombre personal de la época, que no conocemos, o un antropónimo tomado de la toponimia, como *Ariztimuño*.

Nafarroako Toponimia Datu Basera jota, erro bereko *Ekiraso* toponimoa topatu dugu, Aezkoako Hiriberrin, Zaraitzuko mugan, balizko *Ekirate* bat zuzitzeko nahikoa gure ustez. *Ekira* erroko beste toponimorik ez dugu aurkitu Euskal Herri osoan.

Honainoko hitz eta izen guztiak, *kebe*, *zorhi*, *Ekirate*, Aragon ibaiaren arroan kokatzen gaituzte. Irulegiko gaztelua, Arga eta Aragon ibaien arteko ur banatzailean dago *Ekirate* idoro ondoren, bere etxean zer gertatzen den asmatzea dagokigu hurren. Eta horretarako, hautu batzuk lehenetsi eta beste batzuk baztertzen hasi behar gara, esaldiaren esanahian hautu horien ondorioak zein diren behatu eta ebaluatzeko.

Acudiendo a la Base de Datos de Toponimia de Navarra, encontramos el topónimo Ekiraso, de la misma raíz, en Hiriberri de Aezkoa, en el límite con Salazar, suficiente para justificar una posible Ekirate. No encontramos otros topónimos de raíz Ekira en toda Euskal Herria.

Hasta este momento, todos los términos hallados *kebe*, *zorhi*, *ekirate*, nos sitúan en la cuenca del río Aragón. El castillo de Irulegi se encuentra en la divisoria de aguas entre los ríos Arga y Aragón.


Tras encontrar a Ekirate, nos toca adivinar qué ocurre en su casa. Y para ello, debemos priorizar unas opciones y empezar a descartar otras, para observar y evaluar cuáles son las consecuencias de esas opciones en el significado de la frase.



Lehenik eta behin azken hitzari helduko diogu, goiko matrizean ikusten den moduan aukera kopuru murriztena duena baita. *Eraugon* ez dugu Orotarikoan, ez eta *eraukon* ere. Beren hurbilekoenak, *eugon* eta *eragon* aditzak dira. *Eugon* aditzaren faktitibotzat hartuko bagenu, *iragan*, *igaro* esanahia leukake, *eugon* zera baita, *igan* edo *igo* aditzaren aldaeretako bat. Aukera egokia esanahiaren aldetik, baina *eugon* aldaera Bizkaiko Arratian jasoa da eta beraz orain

En primer lugar, nos fijaremos en la última palabra, que es la que tiene menor número de opciones como se ve en la matriz superior. No tenemos *eraugon* ni tampoco *eraukon* en el DGV. Lo más cercano son los verbos *eugon* y *eragon*. Si lo interpretamos como factitivo de *eugon* significaría *pasar*, como *igaro*, ya que *eugon* es una variante del verbo *igan*, *igo*. Una opción válida desde el punto de vista del significado, pero la variante *eugon* está recogida en Arratia (Bizkaia), por lo que nos

arteko euskalki-koherentziatik aldenduko alejaría de la coherencia dialectal existente gintuzke. hasta ahora.,



Bigarren aukera, *eragon* aditza da. *Eraugon*-en esanahi bereko aldaera izan liteke, *jantzi* eta *jauntzi* edota *arkitu* eta *aurkitu* esanahi bereko aldaerak diren hein berean.

Kokapen aldetik, Bizkaian ere ageri da, baina ez Bizkaian bakarrik aurrekoa bezala, Euskal Herri osoan baizik, Ekialdea barne. Eta esanahi aldetik aurrekoa bezain egokia edo are amiñi bat egokiagoa dugu, *entretenu* edo *distraitu* esan nahi baitu, hots, zezer egiten denbora pasa, batzuetan lanean, baina gehienetan aisialdiarekin lotuta. Hau guztiagatik, *eragon* aditza hobetsiko dugu inskripzioko *eraukon* argitzeko. Gogora arazi dezagun bide batez, iberieran letra bakarra dagoela *b* eta *p* adierazteko, letra bakarra *d* eta *t* adierazteko eta letra bakarra *g* eta *k* adierazteko, eta beraz bikote bakoitzaren barnean interpretaziorako lagungarrien gertatzen dena hautatzea zilegi zaigula.

Hurrena *eseakarri* hitz edo multzoarentzat proposatu behar dugu interpretazioa. *Sorioneku*-ko *s*-a, *z* bailitzan irakurri dugunez, hemen ere beste hainbeste egitea izango da zintzoena, eta beraz *ezeakar(r)i* geratuko litzaiguke. Honek ezezeko baten presentzia iradokitzen du berehala: *ez *eaka(r)ri* edota **eze *akar(r)i*. Ez bata ez bestea ez dira Orotarikoan ageri, baina litekeena da *akartu* aditzaren aldaera izatea. *-tu* latinari hartutakoa dugunez, gero *akartu* izango zena aurrez *akar(r)i* izan bide zela iradokitzeak ez du

La segunda opción es el verbo *eragon*. Podría ser una variante de *eraugon* con su mismo significado, del mismo modo en que son igualmente sinónimos idénticos *jantzi* y *jauntzi* (vestirse) o *arkitu* y *aurkitu* (descubrir

En cuanto a su ubicación, también está presente en Bizkaia, pero no sólo en Bizkaia como el anterior, sino en toda Euskal Herria, incluido su Oriente. Y en cuanto a su significado es tan apropiado como el anterior o incluso un poco más porque significa *entretenerse*, *distraerse*, *divertirse* es decir, pasar el rato haciendo algo, a veces trabajando, pero la mayoría de las veces relacionado con el ocio. Por todo ello, priorizaremos la hipótesis *eragon*.. Recordemos que en el ibérico sólo hay una letra para *b* y *p*, una letra para *d* y *t* y una letra para *g* y *k*, por lo que se nos permite elegir la que resulte más útil para la interpretación dentro de cada pareja.

A continuación proponemos la interpretación para la palabra o conjunto *eseakarri*. Como hemos leído el *s* de *Sorioneku* como si fuera *z*, lo más honesto será hacer aquí otro tanto, por lo que nos quedaría *ezeakar(r)i*. Esto sugiere inmediatamente la presencia de una negación: *ez *eaka(r)ri* o bien **eze *akar(r)i*. Ninguno de los dos aparecen en el DGV, pero es probable que se trate de una variante del verbo *akartu* (enfadarse). – No parece descabellado proponer *akarri* como ancestro del actual *akartu*, sabiendo que la finalización en *tu* se la debemos al latín.

* en la forma *eze akar(r)i* tendríamos una posible negación arcaica *eze*

ematen neurri gabeko ausarkeria.

**eze akar(r)i* forman, balizko ezezko arkaikoa izango genuke

ez eakar(r)i* forman, balizko **jakar(r)i* (xakar(r)i* zaraitzueraz) baten sorburua legoke. Guztiak,- inoiz izan baziren-, *akartu* aldaera nagusitzerakoan galdutakoak.

Akartu hitza tartean sartzea ia nahitaezkoa gertatzen da semantikaren aldetik, esaldiak *eraugon* aditzaren antonimo bat eskatzen duelako, ezezkoak hartaratuta: *Ez eakar(r)i. Eraugon. Alegia, ez akartu, ez haserretu, entretenitu, ondo pasa.*

Beraz, errazenetik zailenerantz darabilgun bide honetan, lehenik *eragotetik akartzera* igaro gara, ezezkoak bidea argituta, eta horrenbestez iritsi gara ments dugun azken erronkara, erronkarik zailenera, *OTIRTAN* ilunera. Denetan zailena, bertan dugun *T* hori ez delako iberiar alfabetokoa, euskararen fonetikaren beharrak asetzeko sortutakoa baizik, eta ez dakigulako beraz nola ahoskatu behar dugun ere. Goiko taulan zerrendatu dugu gogoetagai ibilitako aukera mordoa. Hasierako *Ot*-ek eta testuinguruak iradokita, nolabaiteko otordua dela ematen du, baina ezin %100 seguru esan eta izatekotan ere ezin ezer jakin balizko otorduaren zer-nolakoaz.

Korapiloa Mendigatxak askatuko digu beste behin, hark erakutsitakotik iritsi baikara oraingo proposamena egitera. *Otsirtan* irakurtzea proposatuko dugu eta berehala argituko dugu zergatik.

Otsir ez da ageri Orotarikoan. Bai ordea metatesi bat bitarteko bere oinordeko bide dugun *orrits*. Berdin-berdina izan gabe, *lexar* eta *errexala*-rena bide dugu aipatu metatesiaren zurigarri egokia (mila esker Ander Ros adiskideari). *Orritsa* banketea da, Oihenartek argitzen digunez hitzaren agerpen jator bakarrean (*Orritsetan du erhoak ona gastatzen, eta zuhurrak berea goitiatzen*), gainerakoak Oihenart beraren sorburu horretatik hartutakoak baitira. Baina

* en la forma *ez eakar(r)i* estaría el origen de un posible **jakar(r)i* (**xakar(r)i* en el dialecto de Zaraitzu, Salazar), que de haber existido habría sido en todo caso reemplazado por *akartu*.

La aparición de la palabra (*akartu*= *enfadarse*) es casi semánticamente obligada, ya que la frase exige un antónimo del verbo *eraugon*, al que se refiere la negativa: *Ez eakar(r)i. Eraugon*. Es decir, *no enfadarse, divertirse*.

Por lo tanto, en este camino que va de lo más fácil a lo más difícil, hemos pasado primero de *divertirse* a *enfadarse*, iluminados por la negación, y así llegamos al último reto que queda, el reto más difícil, el oscuro OTIRTAN. El más difícil, porque esa T no es del alfabeto ibérico, sino que ha sido creada para satisfacer las necesidades de la fonética del euskera, y no sabemos por tanto cómo debemos pronunciarla. En la tabla de arriba hemos enumerado un buen número de opciones que han sido objeto de reflexión. Por sugerencia de la OT inicial y del contexto, pudiera ser una comida, pero no se puede saber seguro al 100% seguro, ni tampoco se puede saber nada sobre su naturaleza.

El nudo nos lo va a soltar una vez más Mendigatxa, que es quien nos conduce a la propuesta Propondremos leer *Otsirtan* y enseguida aclararemos por qué.

Otsir no aparece en el DGV. Pero sí que aparece *orrits*, del cual le separa una simple metátesis, si no idéntica, sí al menos del mismo tipo que la ya atestiguada entre *lexar* y *errexal* (gracias a nuestro amigo fonetista Ander Ros). Según nos explica Oihenart en el único testimonio original de esta palabra *orrits* significa *banquete*. Pero Mendigatxa nos hace saber que el *orrits* de Oihenart en Zuberoa se ha convertido en *urrits* en Roncal y Salazar, ya que a quienes participan en tal evento se les llama *urriskide* (*colegas de urrits*). ¿Y qué significa? Pues es el banquete ritual que se organiza una vez al año para que los vecinos que están enfadados se reconcilien, según es costumbre inmemorial de Roncal y Salazar. Los vecinos enemistados que se reúnen en esa comida salen de ella convertidos en *urriskide*, reconciliados, y hechas las paces. He aquí nuestro puente de Leonardo completamente consolidado.

Mendigatxak jakin arazten digu Oihenarten Zuberoako *orritsa*, *urritsa* bilakatu dela Erronkari eta Zaraitzun, *urriskide* baitira bertan parte hartzen dutenak. Eta zer da ba *urrits* hori? Bada, haserre dauden auzokideak adiskiddera daitezen urtean behin antolatzen den bankete errituala, Erronkari eta Zaraitzuko usadio zaharraren arabera. Bertan parte hartzen duten auzokide etsaituak *urriskide* bihurtuta elkitzen dira otordu horretatik, adiskidetuta, pakeak eginda. Honatx Leonardoren zubia guztiz osatuta.

Otsir/Orrits/Urrits batera, bere etxera datozen auzokide etsaituei, *Ekirate*-k gogora arazten die ate gaineko eskuaren bidez pakeak egitera etorri direla eta eskatzen die ez daitezela haserretu eta egon daitezela giro onean. Honen argitan, testuaren lehen esaldian suma dezakegu orain, bertso zaharretako metafora-bide ezaguna: naturaren ezaugarrietan erreferentziak bilatzea (*altzak ez du bihotzik, ez gaztanberak hezurrik*) gizakien jokabideen inguruan mintzatzeko (*enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik*). Hein berean *Ekiratek* ongi etorria ematen die bere etxera datozen auzokide etsaituei, bere etxean dauden fruituen heldutasuna gorai patuz, bertan dauden guztiak ere heldutasunez jokatu behar dutela gogora arazteko: *Zorhi oneku dene kebe*.

Bakegile eta bitartekari dihardu beraz *Ekirate* eta beraz, Irulegiko hirian ez zen edonor izango, nolabaiteko bake-epaile edo buruzagia baizik. Bidebatez, izen toponimikoetan gertatu ohi den legez, ez du genero markarik eta etxeko jauna ala etxeko andrea ote zen jakin gabe geratu beharko gara *urriskideen* ohituraren inguruko argibide osagarriak non edo han noizbait erdietsi ezean.

Irulegiko Gazteluko inguruan, Hegoaldeko Goi Nafarrera hitz egiten zen duela bi mende. Eskuaren testuak berriz, Zaraitzu eta Erronkarira garamatza argi eta garbi. Ez dut uste honek, interpretazioa zalantzan jarri beharko lukeenik. Azken bi mila urteetan Iruñea eta Gasteiz izan dira eragin iturri eta ez da zaila irudikatzea, lehenago Aragon ibaiaren arro osoa bete bide zuten Ekialdeko euskalkiak epe luze horretan apurkaberaren eragin-esparrua galtzen eta


A los, vecinos enemistados que acuden a su casa a celebrar el *Otsir/Orrits/Urrits*, *Ekirate* les recuerda con la mano que cuelga sobre la puerta, que han venido a hacer las paces y les pide conducirse con madurez, que no se enfaden y que estén en un buen ambiente. A la luz de esto, podemos sentir ahora, en la primera frase del texto, la conocida vía metafórica del verso antiguo, donde una referencia a la naturaleza sirve de introducción a otra sobre el carácter humano: En este sentido *Ekirate* da la bienvenida a los vecinos enemistados que vienen a su casa, ensalzando la madurez de los frutos que hay en ella, para recordarles que todos los presentes también deben actuar con madurez: *Zorhi oneku dene kebe*.

Por tanto, *Ekirate* hace labores de mediación y pacificación, por lo que en la ciudad de Irulegi no habría sido una persona cualquiera, sino alguien prominente con autoridad moral y política. Por cierto, como suele suceder en los nombres toponímicos, no tiene marca de género, y quedaremos sin saber si era el señor o la señora de la casa a menos que en algún momento podamos obtener informaciones complementarias al respecto.

En los alrededores del Castillo de Irulegi hace dos siglos se hablaba Alto Navarro del sur. El texto de la mano, en cambio, nos lleva claramente a Salazar y Roncal. No creo que esto, deba poner en duda la interpretación. En los últimos dos mil años Pamplona y Vitoria-Gasteiz han sido la fuente de influencia principal y no es difícil de imaginar, que en ese largo periodo, los dialectos orientales que antes habrían llenado toda la cuenca del río Aragón hayan perdido y

murrizten, iparrerantz eta ekialderantz atzera eginez. Gainera epe berorretan Gaztela izan den bezala Mendebaldean kokaturik bere boterearen eragina ekialderantz senti arazi duena, Irulegin jendea bizi zen garaian, Ekialdean bizi ziren iberiarrak bide ziren eragin sorburu, haien alfabetoaren erabilpenak erakusten duenez, eta irudikagarria da horren itzalpean ekialdeko euskalkiak apur bat mendebalderantz zabaldua. Ez dakit horrela gertatu ote zen, ez baitago horren inguruko albisterik (berau litzateke lehena), baina ehiki irudika daitezke horrelako mugimenduak.

disminuido su influencia, retrocediendo hacia el norte y el este. Además, del modo en que durante el último milenio Castilla ha hecho sentir su influencia de Oeste a Este, en la época en que vivía la gente en Irulegi, la influencia culta exterior venía de los íberos que vivían en Oriente, como demuestra el uso de su alfabeto, y es representable que a su sombra el dialecto oriental se haya podido extender ligeramente hacia el Oeste. No sé si ocurrió así, porque no hay noticias al respecto pero se pueden imaginar perfectamente este tipo de movimientos.



BASKO-IBERISMOA

Nire ustez Irulegiko testuak ez dio basko-iberismoari inolako mesederik egiten eta bai ordea alderantziz.

- a. Bai noski iberiarrak euskaldunengan izan zuten eraginaren norainokoari dagokionez: euskara iberiar alfabetoaz idatzi zen eta alde horretatik, iberiar idazkeraren gaia gure filologian sartu beharko litzateke aurrerantzean.
- b. Iberiera euskaratik interpretatzeko ahaleginari dagokionez ordea, uste dut Irulegikoak azken bultzadatxoak ematen diola amildegian behera bidaltzeko. Izan ere, iberiar testuak euskaratik ulertzeko ehun urte pasako ibilbide neketsua egin ondoren, iberiar

VASCO-IBERISMO

Yo creo que el texto de Irulegi no beneficia en nada al vasco-iberismo sino todo lo contrario.

- a. Sí que lo hace, claro está, en cuanto al alcance de la influencia de los íberos sobre los vascos: el euskera se escribió sobre el alfabeto ibérico y, en este sentido, el tema de la escritura íbera debería introducirse en nuestra filología.
- b. En cuanto al esfuerzo por interpretar el íbero desde el euskera, creo que lo de Irulegi le da el último empujón para despeñarlo. Y es que, si después de cien años de arduo trabajo para entender textos íberos desde el euskera, ahora resulta que somos capaces de entender

idazkeraz idatzitako euskara aitaren batean ulertzeko gauza bagara, kontraste hain bortitz horrek erakusten duena da, aurreko testu horiek denak ezin direla euskaratik ulertu. Kapaz bagara Irulegikoa euskara dela lipar batean ohartzeko, are gehiago, zaraitzua/erronkaria usaineko euskara dela zehazteko, eta bitartean Andeloskoarekin urteak badaramatzagu korapilatuta, bi ulerpide baino ez daude: Bata da pentsatzea Irulegitik Andelosera euskara izugarri aldatzen zela eta bestea berriz, Andeloskoa euskara ez dela. Argi eta garbi azken honen aldekoa nauzue, bestea sinesgaitz egiten zaidalako zeharo.

NOIZKOAK DIRA EUSKALKIAK?

Ez naiz ni nor galdera honi erantzuteko, eta ez dut inondik inora gutxietsiko VI mende inguruko batuaz mintzo zaizkigun adituen lana, ongi oinarriturikoa dela uste dudalako. Baina agian geruzak bereizten hasi beharko gara hizkuntzaren barruan, zeren Irulegiko testu honek begibistako jarraikortasuna erakusten baitu Zaraitzu eta Erronkariko euskararekin. Testuaren hiru bertsiotzat ditut horren erakusgarri:

IRULEGIKO ESKUAN

Zorhionekudenekebe. Ekiraterenotsirtan ez eakari, eraugon.

OROTARIKOAN AGERI DIREN HITZEZ

Zorhi oneko denekeben. Ekirateren orritstan ez akartu, eragon.

ERDIALDEKO EUSKARA ESTANDARREAN

Ongi heldua dena ere hemen. Ekirateren adiskidetasun banketeetan, ez haserretu, ondo pasa.

Lehenetik bigarrenera ikusten da euskara zenbat aldatu den bi mila urteetan. Eta bigarrenetik hirugarrenera, zenbat aldatzen den Ekialdetik gaurko euskara estandarera. Bistan da non dagoen saltorik handiena. Testua ulergaitza zaigu batez ere erronkaria eta zaraitzua ulergaitz

el de Irulegi de modo casi inmediato, ese contraste tan evidente demuestra que todos esos textos anteriores no se pueden entender desde el euskera. Si somos capaces de reconocer en un momento que lo de Irulegi es euskera, e incluso precisar que es un euskera con matices de Salazar y Roncal, y mientras tanto, llevamos años enredados con el de Andelos, sólo hay dos formas de entenderlo: Una es pensar que de Irulegi a Andelos el euskera cambiaba una barbaridad y la otra, que el texto de Andelos no es euskera. Soy claramente partidario de esto último, porque lo otro me resulta completamente inverosímil.

¿DE CUANDO SON LOS DIALECTOS?

No soy yo quién para responder a esta pregunta, ni menospreciaré en absoluto el trabajo de los expertos que nos hablan del batua del siglo VI, porque lo considero bien fundado. Pero quizá tengamos que empezar a distinguir distintas capas dentro de la lengua, porque este texto de Irulegi muestra una evidente continuidad con el euskera de Salazar y Roncal. Muestro tres versiones del texto para ilustrar la idea:

EN LA MANO DE IRULEGI

Zorhionekudenebe. Ekiraterenotsirtan ezeakari eraugon.

CON PALABRAS QUE FIGURAN EN EL DGV

Zorhi oneko denekeben. Ekirateren orritstan ez akartu, eragon.

EN EUSKERA ESTÁNDAR CENTRAL

Tenga madurez quien aquí está. En los banquetes de paz de Ekirate, no enfadarse, divertirse.

Del primero al segundo se observa cuánto ha cambiado el euskera en dos mil años. Y del segundo al tercero, cuánto varía de Oriente al euskera estándar actual. A la vista está dónde está el mayor de los saltos. El texto nos resulta difícilmente comprensible en la medida en que

zaizkigun hein berean. Ez du ematen duela 150 urteko Bidankotzeko hiztun jatorrek Irulegikoa ulertzeko hartarainoko zailtasunak izango lituzkeenik.

ARANGURENGO IDAZKUNA

Goiko mezuaren balizko nondik norakoa, zantzu hauetatik ateratzen dut:

Kebe (brontze puska falta da)...gur: Lerro honetan adierazi lezake bertan dagoen asetasuna (? + egur) *ke turx(?)* : x hori ez da segurua. s mota bat dela dioskute iberistek besterik gabe. *tur* berriz, leku harresitua adieraziko luke, Tolosa ondoko Burdin Aroko herriska izandako lekuaren izenak iradokitzen duenez: *Iruntxur*. Beraz *keben turx = hemen harresia* izan liteke.

gibel dine biskan : *Gibel* eta *biska* Orotarikoan aurki daitezke eta horietarik nahiko begibistako litzateke "*Atzean dena desiotan*" itzultzea, esan bezala *dine* hori *dena* izateko aukerarik balego.

Guztia itzulita hutsuneak imaginazio apur batez beteta

Keben gur, ke turx. Gibel dine biskan

Hemen **ogi eta egur**, **hemen** harresi. (harresien) *Atzean dena* (horren) *desiotan*.

Hau prestatu eta gutxira Mattin Aiestaran arkeologo zuzendariaren adierazpen batzuk irakurri nituen eta esaten zuenez, herriska gotortuan bizi zirenak gizarteko handiki gerlariak omen ziren eta jende txikia berriz harresiz kanpo agerian eta erasoan mende. Esanahiaren aldetik borobila da beraz, baina guztia *dine* horretatik zintzilik dago. Eskuan ageri den *dene* bezalakoa litzateke.

Bigarren testuaz berriz ez dut oraindik proposamenik.

nos resultan incomprensibles el euskera de Salazar o Roncal. No parece que los auténticos euskaldunes de Bidankotz de hace 150 años tuvieran tantas dificultades para entender el texto de Irulegi.

TEXTO DE ARANGUREN

La posible naturaleza del mensaje de arriba la extraigo de los siguientes indicios:

Kebe (falta el pedazo de bronce)... gur: En esta línea podría expresar la saciedad (? + EGUR-madera) *ke.... turx (?)*: esa x no es segura. es un tipo de "s" según los iberistas. *turx* = aquí podría ser la muralla, tal como en un topónimo cerca de Tolosa de la edad del hierro nos indica: *Iruntxur*. Por tanto *keben turx* = sería muralla.

Gibel dine biskan. *Gibel*=hígado y *biska* se pueden encontrar en Diccionario General, de los cuales sería bastante obvio traducir "Detrás todo en deseos", si hubiera posibilidad de que ese *dine* fuera todo.

Traduciendo todo y con un poco de imaginación

Keben..... gur, ke..... turx.

Aquí pan y leña, aquí muralla. (murallas) *Detrás todo* (eso) en deseos.

Poco después de esto leí unas declaraciones de Mattin Aiestaran, arqueólogo director, en las que decía que los que vivían en el poblado fortificado eran grandes guerreros de la sociedad y que la gentenormal estaba expuesta fuera de las murallas y sometida a ataques. En cuanto a su significado, es redondo, pero todo está colgado de ese *dine*. Sería como el *dene* que aparece en la mano.

Del segundo texto todavía no tengo ninguna propuesta.